GIZA ESKUBIDEAK DEFENDATZEN DITUZTENAK BABESTEKO KOMUNIKAZIOA.

Kazetariei eta komunikatzen duten erakundeei zuzendutako jarraibideak.





Brigadas Internacionales de Paz

ESKER ONAK

Dokumentu hau ahalegin kolektibo baten emaitza da. Gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu prozesuan aktiboki parte hartu duten lagunei eta erakundeei. Beren denbora, esperientzia, ekarpenak eta prestasuna funtsezkoak izan dira. Eskerrik asko, beraz, honako hauei:

- Miryam Vargas, nahua herri indigenako komunikatzailea, Radio Cololan irrati komunitarioko esataria eta giza eskubideen defendatzailea, Frente de Pueblos en Defensa de la Tierra y el Agua - Morelos, Puebla y Tlaxcala (FPDTA-MPT) erakundeko kidea. Mexiko.

- Gabriela Sorto, El Guapinolgo komunikatzailea eta COPA erakundeko kidea. Honduras.

- Alejandra. Herri indigenen defendatzailea. Nikaragua.

- Dalila Argueta, erbesteratutako defendatzailea, Red Nacional de Defensoras de Derechos Humanos de Honduras eta Iniciativa Mesoamericana de Mujeres Defensoras (IM-D) erakundeetako kidea.

- Fatma Galia, Emakume Saharartren Batasun Nazionaleko kidea eta Saharar Kazetarien eta Idazleen Europako Ligako presidentea. Mendebaldeko Sahara.

- Nare-Programa Vasco de Protección de Para Defensoras y Defensores de Derechos Humanos. 2026.

- Judith Barrera, comunicadora ecofeminista. El Salvador.

- Aranza Santos, activista trans feminista. El Salvador.

- Norma Sancir, kazetari komunitarioa. Guatemala.

- Lesly Banegas, Radio Progreso. Honduras.

- Maria Ángeles Fernández eta Jairo Marcos, kazetari independenteak, testuen eta argazkien bitartez istorioak kontatzen esperientzia handia dutenak. Desplazados.org. Euskal Herria

- Gorka Andraka. Mar de Fueguitos irratsaioaren aurkezlea. 97 Irratia. Euskal Herria

- Mugarik Gabe. Euskal Herria

- Mugen Gainetik. Euskal Herria

- Mundubat fundazioa. Euskal Herria

- Zehar Errefuxiatuekin. Nare Programa. Euskal Herria

- Nazioarteko Bake Brigadak (PBI) erakundeko taldeak.

Prozesua honako erakunde hauen finantziazioa izan du, baina dokumentuaren edukia erakunde hartzailearen erantzukizun esklusiboa da:

pbi

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN Lankidetza Cooperación

Bilbao UDALA AYUNTAMIENTO

LANKIDETZARAKO ETA ELKARTASUNERAKO EUSKAL AGENTZIA AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN Y SOLIDARIDAD

KOMUNIKAZIOA BABES-TRESNA GISA: PBIREN ESPERIENTZIA

Azken 40 urteetan, Nazioarteko Bake Brigadak erakundeak bidelaguntza eman die giza eskubideak defendatzen dituzten lagunei, erakundeei eta komunitateei hainbat herrialdeetan, batez ere, eginkizun horrek arrisku handia eragiten dien kasuetan. Nazioarteko bidelaguntza ideia soil honetan oinarritzen da: nazioarteko begiraleen bitartez erasoen kostu politikoa handitzea, laguntza-sareak sortzea, eragiteko lana eta egoera ezagutzera ematea.

Esparru horretan, komunikazioak beti izan du funtsezko garrantzia. Arrisku egoera ezagutzera ematean, bada, PBIk garatzen dituen babes integraleko estrategien funtsezko elementuak dira erakunde kideen eskaerak luzatzea edo giza eskubideen urraketak bistaratzea, besteak beste.

Hala ere, metatutako esperientziak erakusten digu ikusgarritasun mota orok ez dutela berdin babesten. Egoera batzuetan, nazioarteko kanpaina batek komunitateak jasaten duen arriskua murrizten lagun dezake; beste batzuetan, aldiz, argazki batek, elkarrizketa batek, edo datu txiki batek jazarritako lagunak identifikatzeko balio dezakete, eta horrek lurraldean dauden horien arrisku-egoera larriagotu dezake.

Esperientzia horiei esker, PBIk kalterik gabeko ekintzako ikuspegia garatu du bere komunikazio estrategietan. Horrek esan nahi du edozein ekintzak –helburu legitimoak baditu ere– espero ez diren ondorioak ekar ditzakeela, eta horiek aztertu, aurreikusi eta, ahal den neurrian, prebenitu edo arindu behar direla.

Komunikazio-estrategietan kalterik gabeko ekintza-ikuspegia.

Dekalogo hau esperientzia horretarik sortu da, hain justu ere. Bere asmoa ez da PBIren babes-metodologia horiek kazetaritzaren esparrura eramatea, baizik eta hausnarketa bat partekatzea, defendatzaileekin lan egitean sortutako hausnarketa, alegia. Halaber, elkarrizketa bat ezarri nahi du komunikazioaren arloan giza eskubideen defendatzaileak babesteko funtsezko eginkizuna duten horiekin.

BABESTEKO KOMUNIKATZEA: BEHARREZKO ELKARRIZKETA.

Komunikazioa inoiz ez da ekintza neutrala. Argitaratutako argazki, lerroburu, elkarrizketa edo mezu orok errealitatea ulertzeko modu jakin bat sortzen laguntzen dute. Giza eskubideen arloan, gainera, komunikazioa elkartasuna sortzeko, babesa mobilizatzeko eta eskubideen defendatzaileen aurkako erasoen kostu politikoa handitzeko tresna izan daiteke. Baina komunikazio horrek berak nahi ez ditugun efektuak ere eragin ditzake: arriskuan dauden lagunen esposizioa handitu, zelataritza edo kriminalizazio prozesuak erraztu, borrokak despolitizatzen dituzten kontakizunak erreproduzitu, edota, nahigabe bada ere, defendatzaileak isilarazi nahi dituzten horien estrategiei lagundu.

Denbora luzez, komunikazioari eta giza eskubideei buruzko hausnarketak egiazkotasunarekin, errepresentazioarekin edo informazioaren kalitatearekin lotutako kontuetan zentratu dira. Hala ere, gutxiagotan hausnartzen dugu kontu garrantzitsu honi buruz: **zer ondorio ditu komunikazio-erabaki jakin batek gure istorioetan agertzen diren lagunen segurtasunean?**

Galdera hori bereziki garrantzitsua da giza eskubideen defendatzaileei buruz ari garenean. Eskubideak defendatzeak, hainbat testuingurutan, mehatxuak, difamazio kanpainak, jazarpen judiziala, zelataritza digitala, lekualdatze behartua, erbesteratzea edota heriotza ere ekar ditzake. Testuinguru horietan, komunikatzeko modua ez da narratiba kontu hutsa, babes kontua ere bada.

Komunikazioak hitz egiteko eta nazioarteko elkartasun sareak sortzeko eremuak irekitzen lagun dezake, baina aukerak itxi, estigmak indartu edo arriskuak handitu ere egin ditzake. Dimentsio bikoitz hori onartzea ez da informatzeko eskubideari uko egitea, ezta kazetaritza jarduera mugatzea ere; beste hausnarketa etiko bat sartzea da, hain zuzen ere, gure erabakiek beste pertsona batzuengan eta gureak ez diren testuinguruetan dituzten ondorioei buruzkoa.

ENTZUTETIK ERAIKITAKO PROZESUA

Dokumentu hau ez da ariketa akademiko batetik sortu, ezta barne lanketa itxi batetik ere; aitzitik, azken urteotan giza eskubideen defendatzaileekin, kazetariekin gizarte zibileko erakundeekin eta PBIko taldeekin garatutako elkarrizketa prozesu baten emaitza da. Bide horretan, garatu ditugun komunikazio-jarduera ugariek hausnarketak eta kezkak eragin dizkigute, eta horietan sakontzeko beharra dagoela uste dugu: **komunikazio ekintza jakin batek noiz babesten ditu giza eskubideen defendatzaileak eta noiz jartzen du arriskuan beren segurtasun egoera, nahigabe bada ere? zer elementu sartu behar ditugu kazetaritza eta komunikazio jardueran informazioak giza eskubideen defendatzaileen arrisku egoeran eragiten duenean?**

Galdera horien erantzunak argitzeko helburuz, 2024ko otsailean babeserako komunikazioaren 1. topaketa ospatu genuen Artean (Bizkaia) “Komunikazioa eta giza eskubideak. Gure burua babesteko topaketak” izenburupean. Horretan, 50 lagun baino gehiago elkartu ginen, hala nola Latinoamerikako defendatzaileak eta gizarte komunikatzaileak eta Euskal Herriko eta Espainiako Estatuko gizarte erakundeak. Elkartrukearen aberastasuna gorabehera, topaketan konturatu ginen oraindik bide luzea dagoela komunikazio eta kazetaritza lanak babes ikuspegia barnera dezan.

Hortik sortu zen dekalogo hau egiteko proposamena. Dekalogoa, aldi berean, hausnarketa kolektiboko prozesu baten emaitza da, hain zuzen ere, 2026an zehar eragile anitzekin aurrez aurre eta online egindako hainbat topaketena.

Lehen elkarrizketetan, Honduras, Guatemala, Mexiko, Nikaragua, El Salvador eta Mendebaldeko Saharako defendatzaileak eta Euskal Herriko erakundeak elkartu ziren. Haien esperientziek, bada, komunikazio gidaliburuetan agertu ohi ez diren kontuak identifikatzeko aukera eman zuten. Honako hauei buruz hitz egin zuten: egoera traumatikoak etengabe berritzeak eragiten duen akidura emozionala; irudi batek lurraldean jarraitzen duten senideentzat izan ditzakeen ondorioak; komunitateen gaitasunak indartzen dituzten kontakizunak sortzearen garrantzia, beren sufrimendura mugatu beharrean; edota komunikazioa babes-estrategia zabalago baten zati gisa pentsatzeko beharra.



Gero, hausnarketa horiek PBIko taldeekin eta giza eskubideen arloko kazetariekin partekatu genituen. Adostasun artifiziala bilatu beharrean, eremu horiek erakutsi egin zuten konpontzeko zailak diren tentsioak daudela: azkartasunaren eta zaintzaren artean, ikusgarritasunaren eta segurtasunaren artean, iturriei kontsultatu beharraren eta autonomia editorialaren artean, banakako kontakizunen eta prozesu kolektiboen artean.

Horrexegatik, prozesu honen emaitza ez da gida itxia, ezta jokabide-kode bat; esperientzia partekatutik sortutako proposamena da, bilakatzen jarraitzeko zabalik dagoena.

BABESERAKO KOMUNIKAZIOA ZEHARKATZEN DUTEN DILEMAK

Prozesuan egindako ikaspen nagusietako bat da babesak ez duela formula unibertsalik onartzen.

Agian, ikusgarritasunaren eta babesaren artekoa da tentsio argiena. Argudiatu ohi da nazioarteko ikusgarritasunak defendatzaileak babesteko mekanismoa izan daitekeela, erasoen kostu politikoa handitzen baitu. Baina esperientziak erakusten du hori neurri batean baino ez dela egia. Ikusgarritasunak babes dezake, baina arriskua eragin dezake ere; beraz, garrantzitsua da egindako ekintzak berrikustea eta zalantzan jartzea, eta komunikazio-estrategiekin batera arrisku-azterketak egitea. Izan ere, ikusgarritasunak nazioarteko kanpaina bat indar dezake, baina zelataritza eta kriminalizazio prozesuak ere erraz ditzake. Galdera, hortaz, ez da bistaratu behar dugun ala ez; konplexuagoa da: **zer ikusgarritasun motak babesten du hobeto testuinguru jakin horretan?**

Antzeko hausnarketa bat sortu zen kontakizunen inguruan. Ulergarria da kazetaritzak pertsona jakinen inguruan sortzea kontakizunak; izan ere, istorio indibidualek publikoaren identifikazioa errazten dute eta prozesu konplexuak ulertzen laguntzen dute. Baina borroka oso bat figura bakar batera mugatzen dutenean, pertsona horren aurkako arriskuak handitzen dira eta sare komunitarioak, antolakuntza prozesuak eta ardura kolektiboak kontakizunetik desagertzen dira. Aldi berean, defendatzaileak berek gogorarazi egin zuten kausa askok ez zutela nazioarteko ikusgarritasunik izango horiek pertsonalizatu zituzten figurak egon izan ez balira. Hortaz, behin betiko erantzun bat eman gabe, eztabaidak beste leku batera eraman zuen galdera: **zer ondorio ditu erabaki narratibo horrek eta zer elementu baztertzen ditu?**

Denborak ere eztabaidagai izan ziren. Hedabideen logikak berehalakotasuna lehenesten du; babesak, aldiz, aztertzea, itxarotea eta hitz egitea eskatzen du. Kasu batzuetan, argitalpen bat egun batzuk atzeratzeak pertsona edo komunitatearen aurkako arriskuak nabarmen murriztu ditzake. Komunikazioaren denbora-dimentsio horrek erakusten digu zehaztasunez informatzea itxaroten jakitea ere badela.

Historia indibidualak edo kolektiboak

Elkarrizketetan landu egin genituen, halaber, kazetarien, erakundeen eta defendatzaileen arteko harremanak. Onespenaren eta aldez aurreko elkarrizketaren garrantzia azpimarratu zen, baina baita ere ekidin behar dugula praktika horiek autozentsurako mekanismoak eragitea edo erantzukizun editoriala erabat delegatzea. Halaber, dinamika estraktibistei buruzko hausnarketa kritikoa sortu zen; izan ere, horiek kazetaritzan zein zenbait erakundetan ere aurkitzen dira: lekukotzak jaso eta erabili ondoren desagertzea, egindako lanaren emaitza komunitateei itzuli gabe.

BABESTEKO KOMUNIKATZEA GAUR EGUNGO TESTUINGURUAN

Dekalogoak esanahi berezia hartzen du erabat eraldatutako testuinguru batean.

Informazio zikloen azelerazioa, eskubideen aurkako joera atzerakoien hedapena, desinformazio kanpaina koordinatuen gorakada, biraltasuna lortzeko presioa eta hedabideen ekosistemaren eraldaketa... Horiek, bada, kazetariek eta erakundeek informazioa ekoizteko duten modua eraldatu dute. Sare sozialek zabalkunde aukerak handitu dituzte, baina zailagoa egin dute edukien irismena kontrolatzea, eta horien zirkulazioari lotutako arriskuak areagotu dituzte.

Aldi berean, nazioarteko hainbat txostenek ohartarazi egiten dute munduko hainbat tokitan eremu zibikoa hondatu dela eta defendatzaileen, kazetarien eta komunikatzaileen aurkako erasoek gora egin dutela. Errepresioa ez da indarkeria fisikora mugatzen; estigmatizazio kanpainak, zelataritza digitala, jazarpen judiziala, gorroto diskurtsoak eta inguru digitaletako eraso koordinatuak ere hartzen ditu.

Testuinguru horretan, babesaren ardura ez dagokie defendatzaileekin lan egiten duten horiei bakarrik; erantzukizun partekatua bilakatzen da. Kazetariek, gizarte erakundeek, hedabideek, instituzioek eta komunitateek, bakoitzak bere lekutik, giza eskubideei buruzko kontakizun publikoen eraikuntzan parte hartzen dute. Eta kontakizun horiek osatzeko moduak ere defendatzaile horien bizi eta lan baldintzetan eragiten du.

Hortaz, babesa komunikazio hausnarketaren irizpide gisa sartzea ez da informatzeko eskubidea mugatzea, baizik eta hori aberastea. Ulertu behar dugu kazetaritzaren zehaztasuna eta argitalpen batek izan ditzakeen ondorioen azterketa ez direla bateraezinak; praktika etiko baten dimentsio osagarriak direla.


ERAIKITZEN JARRAITZEKO GONBITA

Hurrengo orrialdeen helburua ez da behin betiko erantzunak eskaintzea, ezta dauden kode deontologikoak ordeztea ere. Ez dute, halaber, obligazio-zerrenda bat ezarri edo kazetarien eta erakundeen autonomia mugatu nahi. Guztiz alderantziz, onartzen dute **ez dagoela egoera guztiak konpontzeko gai den formula unibertsalik,** eta babeserako komunikazioak beti eskatzen dituela testuinguruaren azterketa, hausnarketa etikoa eta erabaki partekatuak.

Prozesuak erakutsi egin digu galderak erantzunak baino baliotsuagoak izan daitezkeela. Nork jasango ditu argitalpen horren ondorioak? Zer nolako arriskuak ari gara hartzen eta nork pairatuko ditu? Zer beste modu daude istorioa kontatzeko? Zer gertatuko da informazioa biral egiten bada? Zer erantzukizun doaz informatzeko eskubidearekin batera, ondorioak arrisku-testuinguruetan bizi diren pertsonek pairatzen dituztenean?

Zentzu horretan, dekalogo hau ez da modu automatikoan aplikatzeko formulario itxia; babesa komunikazioaren dimentsio etiko gisa sartzeko gonbita da. Etika horrek, hain zuzen ere, informazioa egiazkoa edo garrantzitsua den aztertzeaz gain, gure erabakiek beste batzuen bizitzan izan ditzaketen eraginari buruz ere hausnartzen du.

Horrexegatik, dokumentu hau ez da amaiera bat. Une jakin baten argazkia da, elkarrizketa askoz zabalago baten baitan. Eta elkarrizketa horrek eraldatzen jarraituko du, giza eskubideen defendatzaileen eta komunikatzaileen testuinguruak, komunikatzeko moduak eta esperientziak aldatzen diren heinean. Dekalogoak, eztabaidari amaiera eman beharrean, hura zabalik mantendu nahi du, jakinda giza eskubideekin konprometitutako komunikazio bat bakarrik egin daitekeela etengabe hausnartuz, entzunez eta elkarrekin ikasiz.



GIZA ESKUBIDEAK DEFENDATZEN DITUZTENAK BABESTEKO KOMUNIKAZIOA



Kazetariei eta komunikatzen duten erakundeei zuzendutako jarraibideak.

JARDUNBIDE EGOKIAK / ZER EGIN

1 Berrikusi eta egiaztatu

Edukiak zabaldu aurretik berraztertu behar dugu kontuzko informaziorik dagoen, aurreikusi gabeko ondorioak izan daitezkeen edo pertsona eta komunitate defendatzaileei arriskurik eragin diezaiekegun. Posible denean, tartean dauden pertsonekin berrikustea komeni da, kanpotik ikusten ez ditugun alderdiak identifikatzeko.

Bideo bat argitaratu aurretik, defendatzailearekin kontrastatu zer elementu ager daitezkeen eta zeintzuk ez.

2 Segurtasuna eta ikusgarritasuna babesaren zerbitzura jarri

Ikusgarritasunak babestu dezake edo arriskuak areagotu ditzake, eta behin informazio bat argitaratuta, ez dago haren irismena edo zirkulazioa kontrolatzeko bermerik. Komunikatu aurretik, baloratu behar dugu zein da esposizio-maila egokiena testuinguruaren, unearen eta inplikatutako pertsonen erabakien arabera.

Mehatxupean dagoen pertsona bati egindako elkarrizketan erakundearen izena eta bere aurpegia erakusten ez duen irudi bat erabil ditzakegu, egoerak hala eskatzen badu.

6 Salaketa, erresistentziak eta proposamenak orekatu

Komunikazioa ez da jasandako erasoetan soilik zentratu behar. Komunitate-estrategiak, bizi-proposamenak eta pertsona eta komunitate defendatzaileen eragiletasuna indartzen duten antolakuntza-moduak ere ezagutzera eman ditzake.

Erreportaje batean kutsaduraren aurkako salaketak agertzen dira, baina baita kaltetutako komunitateak bultzatutako alternatibak ere.

7 Estrategia komunikazio-kanalera moldatu

Kanal guztiek ez dute esposizio-maila bera eragiten, eta ez dituzte ondorio berdinak. Tokiko prentsan egindako elkarrizketa batek, nazioarteko kanpaina batek edo sare sozialetan egindako argitalpen batek eragin oso desberdinak izan ditzakete, eta arriskuazterketa bereiziak behar dituzte. Halaber, ulertu behar dugu formatu eta plataforma batzuk informazioa ekoizten duten horien kontroletik kanpo gera daitezkeela, eta aurrez ez ikusitako ondorioak sortu.

Ez dugu sare sozialetan argitaratuko pertsona identifikatzeko aukera ematen duen irudi bat, nahiz eta nazioarteko eragileei zuzendutako txosten batean bai agertzen den.

8 Familiek eta jatorrizko komunitateek jasan ditzaketen ondorioak kontuan hartu

Komunikazioak sortzen dituen arriskuek ez diete publikoki agertzen diren horiei bakarrik eragiten. Lurraldean jarraitzen duten familiek, komunitateek eta lagunek esposizio hori jasan dezakete, batez ere erbesteratutako defendatzaileei buruzko komunikazio produktuetan edo errepresio transnazionaleko testuinguruetan.

Defendatzaile erbesteratu batek kanpaina publiko batean parte hartzen du, baina jatorrizko herrialdean jarraitzen duten senideak identifikatzeko aukera eman dezaketen informazioak ez aipatzea erabakitzen da.

Eskubide eta justizia ikuspegietatik komunikatu

Komunikazioak desparekotasunak erreproduzi ditzake edo horiek eraldatzen lagundu. Ikuspegi feministak, antirrazistak eta dekolonialak sartzean, pertsona defendatzaileak subjektu politikotzat hartzen ditugu eta beren eragiletasuna aintzat hartzen dugu. Hala, irudikapen paternalistak, hierarkikoak, birbiktimizatzaileak edo heroikoak saihesten ditugu.

"Indigenek basoa babesteko laguntza eskatzen dute" bezalako lerroburuen ordez "komunitate indigena lurraldea defendatzen ari dira eta Estatuari beren eskubideak babesteko exijitu diote" bezalakoak erabil ditzakegu.

Kontakizun kolektiboak lehenetsi

Borroka asko pertsona jakinen bitartez bihurtzen dira ikusgarri, baina kontakizun indibidualek prozesu kolektiboak eta laguntza sareak baztertzea saihestu behar dugu.

"Meatzaritzari aurre egin zion aktibista" bezalakoen ordez "Komunitateek eta erakundeek lurraldea defendatzeko kanpaina bultzatu dute".

Informazioa testuinguruan jarri

Giza eskubideen urraketak ez dira hutsean gertatzen. Komunikatzea egiturazko kausak azaltzea da, giza eskubideen arloko erantzukizunak eta obligazioak identifikatzea, eta irakurketa sinplistak edo despolitizatuak saihestea. Informatzea botere dinamikak eta urraketen testuinguruak ulertzen laguntzea ere bada. Une jakin batean segurua edo egokia den informazio bat agian ez da izango handik gutxira.

Mehatxuari buruz informatzeaz gain, lurralde gatazka, tartean dauden interesak eta komunitatearen eskaerak azaltzea.

Komunikazioa estrategikoki diseinatzea eta denborak errespetatzea

Komunikazio ekintza orok oinarrizko galdera bati erantzun behar dio: zertarako komunikatzen dugu? Babesaren denborak beti ez datoz bat komunikazioaren denborekin. Estrategiaren barruan, ez komunikatzeko, argitalpen bat atzeratzeko, edo zabaltzeko denbora espezifikoak adosteko erabakia har dezakegu, horrek arriskuak murrizten laguntzen duenean.

Arriskuan dauden komunitateen bira batean, adostu dezakegu artikulu bat komunikabide batean argitaratzea pertsonak beren herrialdera itzuli ondoren.

Zaintza prozesuak eraikitzea

Komunikazioa ez da ez hasten eta ez bukatzen elkarrizketarekin edo argitalpenarekin. Garrantzitsua da konfiantza harremanak eraikitzea, dinamika estraktibista ekiditea, eta bistaratze eta salaketa prozesu horiek sor ditzaketen ondorio emozionalak kontuan hartzea.

Komunitate batean erreportaje bat egin ondoren, hedabideak parte hartu duten horiekin partekatuko du argitalpena, eta harremanetan jarraituko dute.

EKIDIN BEHARREKO JARDUNBIDEAK / ZER SAIHESTU

1 Kontsultatu gabe edo baimenik gabe argitaratzea

Arrisku egoeran dauden lagunei eta komunitateei eragiten dien informazioa zabaltzeak, aldez aurretik galdetu gabe, konpontzeko zailak diren kalteak eragin ditzake. Esposizio publikoari buruzko erabakiak ez dira alde bakarretik hartu behar.

Batzar baten argazkiak argitaratzea, pertsona horiek identifikatuak izan daitezkeen aldez aurretik egiaztatu gabe.

2 Identitateak ezagutzera ematea beharrik ez dagoenean

Arrisku-testuinguruetan aurpegiak, izenak, kokapenak edo identifika daitezkeen elementuak argitaratzeak zelataritza, jazarpena edo kriminalizazioa eragin dezake. Ñabardura txikia badirudi ere, ondorio larriak izan ditzake pertsona, familia eta komunitateentzat.

Jazarpen judizialeko testuinguru batean, protesta-ekintza batetan parte hartzen dutenen aurpegiak erakustea.

6 Birbiktimizatzea edo kaltea anplifikatzea

Mehatxuen, erasoen edo indarkerien erreprodukzio akritikoak beldurra edo desmobilizazioa eragin nahi duten horien estrategiak indar ditzake. Komunikatzeak ez luke kaltea errepikatu behar, ezta pertsonak beren sufrimendura mugatu.

Mehatxuak argitaratzea testuinguruan jarri gabe edo dauden sostenguak azaldu gabe.

7 Arrisku digitalak, legalak eta psikosozialak kontuan ez hartzea

Segurtasuna ez da maila fisikora mugatzen. Zelataritza, kriminalizazioa, esposizio digitala edo inpaktu emozionalak ere kontuan hartu beharreko arriskuak dira.

Defendatzaile bati buruzko argitalpenean gorroto mezuak ikusgai mantentzea, webgune batean zein hedabide baten sare sozialetan.

8 Sareei eta babesei eziku-sia egitea

Pertsona defendatzaileak eragile bakan gisa aurkezteak beren zaurgarritasuna handitu dezake eta prozesuak sostengatzen dituzten sare komunitarioei ezikusia egiten die. Babes horiek bistaratzeak babes eginkizun bat ere izan dezake.

Komunikatu batek David eta Goliaten arteko borrokarekin alderatzen du pertsona defendatzaile bat.

Narratiba estigmatizatzaileak edo sinplifikatzaileak erabiltzea

Exotizazioak, heroitasunak, sentsazionalismoak edo kontakizun paternalistek errealitatea deforma dezakete eta estereotipoak indartu. Narratiba horiek borroken konplexutasuna murrizten dute eta horien protagonisten eragiletasun politikoa mugatzen dute. Halaber, defendatzaileak biktima huts gisa aurkezten dituzten kontakizunak ekidin behar ditugu, horiek indartu egiten baitute zenbait komunitatek eragiletasunik ez dutelako ideia.

"Indigenek muturreko pobrezian bizirauten dute" bezalako lerroburuak.

Borrokak indibidualizatzea

Kontakizunak pertsona bakar baten inguruan eraikitzeak prozesu kolektiboak alde batera utz ditzake, lidergoen arriskuak areagotu ditzake eta borrokaren oinarrian dauden antolakuntza-dinamiken ulermena ahul dezake. Pertsonalizazioa ez du zertan arazo bat izan, baina haren efektuei buruz hausnartu behar dugu, eta pentsatu zer ahots geratzen ari diren kontakizunetik kanpo.

Erreportaje batek pertsona bakar bat aurkezten du komunitate-antolakuntzan oinarritutako borroka baten erantzule bakar gisa.

Gatazkak testuingurutik ateratzea

Egoera bakanak edo sinplifikatuak aurkezteak, bada, egiturazko beste kausa batzuk, erantzukizunak eta botere harremanak ezkuta ditzake. Testuingururik gabeko komunikazioak ez du laguntzen giza eskubideen urraketak zergatik gertatzen diren ulertzen, edo nortzuk diren erantzuleak eta nork duen pertsona eta komunitate defendatzaileak babesteko ardura.

Kaleratze bati buruz informatzea lurralde-gatazka eta tartean dauden eragileak azaldu gabe.

Lastertasuna lehenestea babesaren aurretik

Azkar argitaratzeko presioak arrisku egoerak sor ditzake, eta horiek konpontzeko zailak izan daitezke gero. Berehalakotasuna ez da oinarrizko beste prozesu batzuen aurretik jarri behar, hala nola egiaztapenaren, arriskuen azterketaren eta zaintzaren aurretik.

Informazioa zuzenean partekatzea arrisku-egoeran dauden pertsonak dauden leku batetik, argitalpenaren denborak adostu gabe

Botere harremanak eta dinamika estraktibistak erreproduzitzea

Defendatzaileen izenean hitz egitea, agendak inposatzea edo lekukotzak erabiltzea inolako bidelaguntza prozesurik gabe... Praktika horiek desparekotasunak eta harreman asimetrikoak erreproduzi ditzakete. Babes ikuspegi batetik komunikatzeak, bada, entzutea, erabakiak partekatzea eta harreman horizontalagoak sortzea eskatzen du. Praktika estraktibistak ere ager daitezke lekukotzak eta esperientziak jaso ostean lanaren emaitzak partekatzen ez direnean edo komunitateek emandako denbora eta ezagutza aintzat hartzen ez direnean.

Erakunde batek mezuak eta kanpainak diseinatzen ditu zuzenean kaltetutako lagunei eta komunitateei galdetu gabe. Harremanetan jarraituko dute.

